

za-zine

zaldun urdina: Ikus Blauë Reiter, Der

zarata-musika: Futuristek musikaren arloan egin zituzten lan esperimentalak “zarata-arte” izenez deitzen zituzten, hain zuzen ere, ordurarte musika esaterakoan ulertzen zen kontzeptutik erabat alden nahi zutela adierazteko. Arte-materiala ez zen jadanik musikako eskalaren tonuetara mugatzen, baizik eta hiriko hots eta zaratak, makina, garraio-bide eta fabriketakoak hartu eta haiek adina balioko espresio-bide bezala aldarrikatzen zituzten. “Intonarumori” izenekoarekin (zarata-organoa) egin zuen Russolo-k 1913an lehenengo saioa, delako ideia horientzat egokia litzatekeen soinu-tresna bat sortzeko asmoarekin. Futuristen zarata-musika osagai garrantzitsua izan zen Zuricheko dada errepresentazioetan, eta “poesia aldiberekoaren irakurketa-arratsaldek” deitutakoetan “medio desberdinen arteko” akoplamendu bat probatu zuen dantzaren artearekin, antzezki-zunarekin eta adierazmen literarioarekin. Musika modernoak aurrera jarraitu du eboluzio horrekin eta soinu-errepertorio berri bat sortzeko sakonketa-lanak egin ditu; ondorioz, biak ere elektromagnetikoak diren erregistro tonalari eta elaborazio tinbrikoari esker, asko aberastu ahal izan da “zarata-musika” (Cage, Stockhausen, Kagel, Paik, Ferrari).

zebra: Artean ikasle zirela, 1962ko Hamburg hartan, talde bat osatu zuten Dieter Asmus, Peter Nagel, Nikolaus Störtenbecker eta Dietmar Ullrich pintoreek, eta “Zebra” izen programatikoa jarri zioten, garai hartan nagusi zegoen pintura informalearen gaitzespen garbia erakutsi nahian. Beren estilo figuratibo manierista hotz eta urrunduarekin, hiperrealismo fotografikoa deitutakoaren ordezkaririk garrantzitsuenen artean aurkitzen dira “Zebra”ko artistak. Beren koadro eta grafikoetan *hard-edge* errealismoa erabiltzen dute, optika fotografikoaren doitasun handiaz baliatuz bozeto bezala, eta beren poesia izotzarekin keinuzko espresibitate aldi berean natural eta artifizial baten sintesia lortuz.

zero: Berrogeita hamarreko urteetan eta “Zero” izenpean, bildu ziren Düsseldorfeko Heinz Mack, Günther Uecker eta Otto Piene artistak, argi eta kolorearen pertzepzio espaziala bere azalpenik garbienean posible

egiteko asmoarekin. 1958an argitaratu zuten “Zero”ko artistek beren programa Zero aldizkariaren 1. eta 2. zenbakietan; gero 3. zenbakia 1961ean argitaratu zen.

Alderdi figuratibo guztien murrizketa esan nahi du “Zero”k, eta kontzentrazio purista bat kolore garbier argitasunean eta argiak espazioan egiten duen oszilazio dinamikoaren gainean; jarrera artistiko horrek Yves Klein eta Lucio Fontanaren koadro monokromoe-tan dauka bere parekoa. Argiaren aurkezpen puroa indar sortzaileen iturburu bihurtzen da, eta Mack-ek argi-estela moduan egiten dituen modulazio dinamikoetan gauzatzen du hori; Piene-k globo fluoresenteen argizko baletetan; eta Ueckerrek orratz zuriekin egindako erliebeen argi eta itzalen jokoetan. Espazioa eta denbora erabakiorrak direla azaltzen da argi-mugimendua gauzatzeko orduan, eta argiaren kalitatea agertzen da bere lege propioen aniztasunean. Horren bitartez argi naturalaren eta argi artifizialaren arteko ezaugarri diferentzial funtsezkoenak jartzen dira nabari. Argi naturala ez bezala, argi artifiziala hainbat eratan manipulatzeko modukoa da, eta konfigurazio modulatzailerak egiteko bide bihur daiteke. “Zero” taldearen lana Mondrian eta Malevich-en abstrakzio konkretuaren ideia puristen gain altxatzen da, eta ondo sustraituta utzi ditu op-artearen eta arte lumino-zinetikoaren eboluzioa egiteko behar ziren funtsezko aurrekariak.

zinematismoa: Pintura-teknika sinkronikoa da, futuristek sartu zutena, eta koadroaren azalera mugimendu-ekintza bezala plasmazten duena bata bestearen ondoan kokatutako perspektiba desberdin bidez hartutako mugimendu-segida azkar baten aldibereko-tasun psikologikoki preziatua. Irudiaren aldibereko-tasun hori, Marcel Duchamp-en koadro kubista-futuristaren bitartez egin zen bereziki ezaguna, Biluzi bat eskaileratan behera izeneko koadroarekin.

zinetika: Artista dadaista eta futuristek artearen objektuan mugimenduaren laguntzarekin arte-figurazioko printzipio berriak, alegia denbora eta mutazioa, sartzeko egin zuten ahaleginetik sortu zen arte zinetikoa. Futuristek argi eta koloretako pianoak deitu-

tako haiekin egindako lehenengo esperientziei abangoardia errusiarreko ordezkariek konstruktibistek eta Duchamp eta Man Ray dadaistek eman zieten jarraipena. Alde horretatik, Duchamp-ek 1920tik aurrera espiral moduko disko higikorretan zentratu zuen atentzioa (rotoerliebeak); Moholy-Nagyk 1930 inguruan makina zinetiko-argitsu bat eraiki zuen eta tresna horren mugimendu erritmikoari esker obra plastikoaren ingurua sartzeko bere eragin-eremuan; Naum Gabok, bere hagatxo dardaratiekin, espazio artistiko argitsu erritmikoki dinamizatu sortu zuen.

Eskultura zinetikoak gainditu egiten du monumentu-eskulturen ohizko estatika, izan ere tresna mekaniko, magnetiko eta elektrikoez baliatuz mugimendua eta mutazio dinamikoa plasmazteraz iristen da.

Berrogeita hamarreko urteen hasieratik zinetikak sistematizazio oso berezitu bat bizi izan zuen: zinetika mekanikoak Alexander Calder-engan aurkitzen du bere ordezkaririk nagusia (higikariak); Takis-ek indar magnetikoaren mugimendua ezartzen die modelo ikuskerrei; “Zero” taldeko Piene artistak suspentsioan dauden gorputz gardenek atmosferan izaten duten portaera-moduloak ilustratu zituen; eta Jean Tinguely-k makinaren mundu absurdoa nabarmenarazten zuen bere tresna grotesko-poetikoekin, eta txatarrapuskak erabiliz ingenio motorizatuen hutseko martxa alferra intentsitate liluragarriarekin dokumentatzen duten tresna zinetikoak erai-ki zituen.

Naum Gabo, Pevsner eta Moholy-Nagy konstruktibista errusiarrek beren argi-esperimentuekin oraindik hasten ari ziren garai hartan, jadanik, teknika eta arkitektura zientifikoekin asoziatuta geratu zen arte zinetikoa. Beraz, zirriborrotuta geratu ziren arkitektura luminiko-zinetiko baten ahalbideak, batez ere op-arte plastiko-espazialak argiarekin egin zituen esperimendu estetikoek esker, hauetan, izan ere, argi naturala eta artifiziala aztertzen baitziren bakoitza bere ezaugarri bereziekin eta, eredu moduan, nabarmendu egiten zituzten beren tresna zinetikoen bitartez. Eskultura optiko-espazial horren ordezkarier artean “Zero” taldeko artistak aurkitzen dira, eta baita H. Peters holandesaren inguruan eratutako “Nul” taldea ere, N. Schoeffler dorre luminiko-energetikoarekin, eta Adolf Luther bere argizko konporta transluzido eta espazio fokalekin.

391 Ipar-Amerikako argitalpen dada bat da, Francis Picabiak sortu zuena eta lehenengo aldiz 1917ko urtarrilaren 25ean azaldu zena. Alfred Stieglitz argazkilaria, editore eta pintore iparramerikararen ohorez hartu zuen izen hori, hark bere 291 aldizkariari uko egin baitzion 391 berri honen mesedetan. Stieglitzek berealdiko lana egin zuen arte modernoaren Estatu Batuetan zabal-tzen eta Armory Show delakoaren antolaketan ere parte hartu zuen. ■